

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Brigida Ibarbia Ugarte

*Zumaia,
Gipuzkoa (1935)*

Aurkibidea



Biografia



Oikiako Pikaondo baserrian jaio zen Oikiako plazan bertan. Gurasoak ere bertakoak zituen (aita Pikaondokoa, ama Epeolabehekoa). Hamalau urtera arte Oikiako eskolan ikasi zuen, eta geroago, beste urtebetez, Zumaian. Josten ere ikasi zuen. Bere zaletasunik handienak jostea eta baratzean aritzea izan dira. Baratzeko kontuak oso ondo ezagutzen ditu, baita Oikiako gainontzeko kontuak ere: jaiak, ibaiari lotutako kontuak, arropa-garbiketak eta abar. Bera eta bere familia (ahizpak eta gurasoak) Oikiako elizako zaindari izan dira hainbat urtez. Hogeita sei urterekin ezkondu zen Zumaiaara, eta hantxe bizi da harrezkero.

Zintak

ZUM-006

- **Proiektua:** Zumaiaiko hizkera
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2007-05-29
- **Iraupena:** 61 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k):** Zabaleta Zuloaga, Miren

ZUM-007

- **Proiektua:** Zumaiaiko hizkera
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2007-05-29
- **Iraupena:** 36 min
- **Euskarria:** MiniDV

ZUM-032

- **Proiektua:** Zumaiaiko toponimia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Azkue Ibarbia, Xabier
- **Data:** 2005-01-01
- **Iraupena:** 80 min
- **Euskarria:** CD
- **Emalea:** Azkue Ibarbia, Xabier

Pasarteak

1. Zumaiarrek eta oikiarrek doinu desberdina hizkeran

- **Erref:** ZUM-006/001
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:00:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Zumaiarrek eta oikiarrek doinu desberdina dute hitz egitean. Aizarnazabalera ere hizkera aldatu egiten da.

Transkripzioa

- Ni zumaiarra-zumaiarra ez naix, e! Zumaia “Zumaixa” ta zea horretakua ez naix ni. Ni naix neure... Guk ikasi genduna, beste doiñu batekin.
- Oikiyakua?
- Oikiyakuenta, bai. Oikiya.
- Diferentia da orduan?
- Bai, bai, bai, bai, bai. Bai, Getaira eta danea, baita... Oikiya behian dao, eta gora iyo, Miako Gaiña, Alto de Meagas... Senarra, bai. Alto de Meagasa iyo ta ziharo ezberdiña da. Aizarnazabal ere bai.

2. Serora/sakristau lanak egiten zituzten

- **Erref:** ZUM-006/003
- **Iraupena:** 0:03:55. **Hasi:** 00:01:55. **Bukatu:** 00:05:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

<p>Hiru ahizpa ziren. Aitona Pikaondo bertako semea zen, baina ez zuen ezagutu; amona errezildarra zen, Ipiola baserrikoa. Gurasoak serora-sakristau lanak egiten zituzten eta beraiek zuten elizaren ardura. Beraiek ere ibiltzen ziren gurasoei laguntzen. Seroraren lanak: eliza garbitu, kanpaiak jo... Sakristauaren lanak. Lan hauen inguruko azalpenak. Lan lotua zen; goizeko seietarako kanpaia jotzera joan behar izaten zuten. Kanpaiak nola jotzen ziren. Kanpai-klaseak.</p>

Transkripzioa

- Eta ordun, esan diazu hiru alaba ziñatela.
- Hiru alaba.
- Hiru aizta.
- Hiru ahizpa, hiru ahizpa. Gurasuak... Aittitta nik hiru urte nittunian hilla, baiña geure amama ezautu nuan, errezildarra gendun amama, aitten ama. Aitten ama Errezilkua. Aittitta bertoko semia.
- Bertan, Pikaondokua.
- Bai, bai. Pikaondokua aittitta. Aitta're bertokua ta ama Oikiyan Ipiolakua. Ama Ipiolakua. Ipiola behekoa, e! Bai.

- Eta ordun...

- Eta nere gurasuak zian serore-sankristauak, eleizan ardurakiñ.

- A, bai?

- Bai. Eleizan ardura izan zuen beti, bizi zian bitartian. Ta geo, haiek hill ezkeo're ahizpak ahal dun arte segi zun, baiña geo utzi in zuen. Baiña hirurogei ta gehioun eleizan ardura...

- Zuen familiyan.

- Gure familiyan, bai. Eta guk eleiza garbitzia amakin ta ikasi gendun, ta geo gazteik giñanian'e, larunbatetan eliza. Ta [...] giñuzen orduan, geure lagunak ere etortzen zitzaixkiunak bazkalonduetan larunbatetan ta laguntzea're bai, denboa pasa o, axkarro itteatikan lanak eo... Zea hoiek izandakuak gea, bai.

- Eta zeintzuk izaten zian lanak, serora lanak?

- Ba, seroran lanak, eliza garbittu, kanpaia jo. Sankristauena o zea zan, goizian sei t'erditan albakua, hamabitakua, ta geo illuntzian angelusa, illunakin batea jotzen zan. Ta geo eleiza garbitzien lanak, o entierroik baldin bazan o, bataioik o baldin bazan o, beti ontziyak o zeak preparatu ta gauzak iteko, aldareko zapiyak. Ta sankristauak ere izaten zun bere lana kandelak eta altariak, o apaizentzako erropak o...

- Eta...

- Hori bai, bai, lana zan, e! Sujeziyua zan! Igual egunak ezer ez, baiño goizian sei t'erditako kanpaia jotzea jun behar izaten gendun. Kanpaia, albakua. [Matutiya] ere esaten zitzaion, eta albakua. Ta sei t'erdiyan jaiki ta lehenengo lana, ez dakit, urtietan ta urtietan zenbat aldiz ingo nuan? Goizian ez det behiñ'e izan despertadore beharrik, behiñ'e ez. Beti egunsentian o zean, goizian, lixto. Illuntzian nekatuta ohera, e!, hori bai. Oaiñ ere ni, nei hamarrak ez dixkie telebisian joko. Noixonox joko dixkie, baiña... Goizian...

- Egunsentian.

- Bai. Beti-beti izan det goizian jaikitzeke bat'e perezikan ez. Oaiñ, ondoezikan ta ibillita, ordun tira!, baiño...

- Eta jaiki ta seituan kanpaia jotzea.

- Kanpaia jotzea, albakua. Sei t'erdittan. Jaia bazan, [...]. Geo beatzi hurrenak eta, badakizu garai hartan zer zian: orduan kanpantorrea iyo ta txin-txiña, kanpai txikiya! Txikiya da, txin-txiña esaten giñun. Bueltaka. Ta bestela, jai haundiyak baldin bazan, hiru kanpai eoten zian, eo bi, ze jai zan, kanpaiak, haundiyak, eskuakiñ sakata. Justo-justo allatzen giñan, baiña!

- Baiña sokakin, eo?

- Ez, ez, ez, ez! Eskun!

- Bultzaka?

- Eskuakiñ!

- Eskuakin, e?

- Hau horrela zan burua, eta buruan buelta emateakuan saka itten zitzaion. Bai, bai, bai, bai! Ondo, gaiñea! Ondo gaiñea! Hala zian [...]. Geo hamabitakua zaintzen gendun, hamabittako kanpaiak. Ta geo illuntzian angelusa izaten giñuan.

- Ave Marietako ta...

- Bai, eguardiko hamabi... Angelusa, eguardiko hamabittakua. Hamabiyetan izaten zan hua. Eta geo illuntzian angelusa. Illunakin batea, han nunbait ibiliko giñan, udara bazan, negua bazan.

- Ave Mariakua, e...

- Ave Mariako hori da eguardikua.

- Egurdikua.

- Egurdikua, bai, hala esaten... Toki batzutan Ave Maria, guk hamabitakua esaten giñun.

- Bai.
- Hamabitakua. Zean ere, frontoitan ta're leheno hamabiyak zianian, hala zian.
- Geatu iten zan. Partidua geatu ta...
- Bai, bai, bai, hala zian. Hoiek danak ezauttu dittugu guk, danak.

3. Oikiako herri-eskola; Angelita Zinkunegi irakaslea

- **Erref:** ZUM-006/004
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:05:50. **Bukatu:** 00:09:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Oikian bertan zuten herri-eskola 4 urtetik hasi eta 12ra arte. Irakasle bakarra zuten adin guztietako haurrenzat. Nagusienek irakasten zieten txikiagoei. Irakaslea Angelita Zinkunegi zumaiaarra zen. Irakasle ona zen eta harreman handia izan dute berarekin gerora ere. Eskola barruan dena gaztelaniaz egiten zuten, baina atetik ateratakoan dena euskaraz. Herri-eskolakoa amaitu ostean Zumaiaiko kolegioan egin zuten beste urtebete ahizpa guztiek. Aita ere Zumaiaiko eskolan ibilia zen eta alabek ere ikas zezaten nahi zuen. Gau-eskolak ere izaten ziren.</p>

4. San Lorentzoko ermita eta bertako festa

- **Erref:** ZUM-006/005
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:09:15. **Bukatu:** 00:10:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

Laburpena:

<p>Oikian eliza bakarra dago. San Lorentzoko ermitaren kargua Oikiak zuen, terrenoz Zestoakoa izan arren. Gaur egun urtean behin ematen da bertan meza. Egunez San Lorentzon erromeria egiten zen eta gauean Beduan jarraitzen zuen festak. Orduan garai desberdinak ziren eta bera gaueko festan ez zen inoiz gelditu.</p>

5. Oilasko-biltzea eta gaueko festa San Agustin egunean

- **Erref:** ZUM-006/006
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:10:55. **Bukatu:** 00:13:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:

<p>San Bartolome eguna ospatzen da Oikian. San Agustin eguna San Bartolome txiki balitz bezala ospatzen zen eta herriko gazteentzat egunik onena izaten zen. Goizean oilasko-biltzea egiten zen. Iluntzean erromeria egiten zen eta horrekin batera asto gainean begiak tapatuta jarri eta igitaiairekin zintzilik zegoen oilaskoari lepoa moztu behar izaten zitzaion. San Bartolome bigarrenegun ttunttuna eta dantzariak izaten ziren. Egunez egun batean jazbana eta beste bi egunetan soinu-jolea izaten ziren. Jaien ostean igandero erromeria egoten zen San Migelak arte.</p>

6. Irail bukaeran "neska-festa"; dantza loturako debekua

- **Erref:** ZUM-006/007
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:13:15. **Bukatu:** 00:15:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak

Laburpena:

<p>Jaien ostean igandero erromeria egoten zen San Migelak arte eta erromeria ederrak egiten ziren. Iraileko azkenengo igandea "neska-festa" izaten zen, neskek ordaindutako jaia. Neskak Hijas de Mar&iacut;a kongregaziokoak izaten ziren eta mutilekin dantza lotua egiteko debekua izaten zuten. Osaba batekin dantza egitearren apaiza etxera etorri zitzaion bronka botatzera.</p>

7. Jaietan gonbidautza; paella eta entsalada bazkaltzeko

- **Erref:** ZUM-006/008
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:15:05. **Bukatu:** 00:16:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Etxe barruko ospakizunak

Laburpena:

<p>Jaietan gonbidautza egiten zen eta beste herri batzuetatik senideak etortzen ziren. Etxean hazitako oilaskoekin salda egiten zen. Paella eta ensalada jartzen zituzten bazkaltzeko. Tomate nahikoa izaten zuten entsaladarako eta paellari ere jenero ugari botatzen zioten.</p>

8. Ekaitzetik babesteko lore-sortak nola egiten ziren

- **Erref:** ZUM-006/011
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:17:40. **Bukatu:** 00:19:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Natura » Meteorologia

Laburpena:

<p>Ekaitzik ez izateko teila ateratzen zen etxe kantoira eta lore iharrak bertan jarrita su ematen zitzaion ekaitza uxatzeko. San Juanetan lore-sorta egin eta elizara eramaten zuten bedekatzera. Lore-sorta nola egiten zuten; lore sorta zutik jartzeko ("hankak" egiteko) ezpata-lorea erabiltzen zen. Lore-sorta hura ganbarara jaso eta ekaitza zenean hura etara, teila baten gainean jarri kanpoan eta su ematen zioten ekaitzetik babesteko.</p>

Transkripzioa

- Itxe-kantoira´re, baserriko itxe-kantoira ateatzen zan zea, teilla. Teilla bat o beti eoten zan, ta San Juanetan zeatutako, lore ihartutakua´re bai. Su eman ta kia... ekaitzak ez hondamendiik itteko, ez zeatzeko, e!
- Kontau hori, mesedez...
- Bai. San Juanetan, izaten gendun guk, lore-sorta eramaten zan eleiza, meza nausira.
- Beti lora klase bat? O... edozein lora?
- Edozein lora. Basarriyan beti izaten zian loriak, beti. Artua landare bat, gariya pare bat buru o horrela, eta keixak o baldin bazian, haren adar bat'e bai. Keixakin, ta geo inguru dana loriakin, sorta. Eta hari itten giñuzen, ezpata-loria esaten giñunakin, lau hanka, tente eoteko. Orduan, hamen ere badazkau guk baratzan lore klase hori, ordun, ta ezpata bezalakotxe lore bat, baiño da, zapata bezela du sustarriya. Ebakitzen giñuzen lau, azpiya berdindu, lore-sorta iñ, lore-sorta iñ, ta lau hanka hoiekin jartzen gendun, ta tak!, tente eoten zan, ez zan erori´re itten! Lore-sorta hua bedekinkau ta jaso itten giñun hurrengo urteko San Juana arte, ganbaran, zea, azpira, teillatu...
- Sakapian, o?
- Bai. Azpiko zean, hantxen, ihartu ta hantxen eoten zan. Eta geo ekaitza zanian, ekaitza zanian, ba, teilla baten gaiñian o itxe-kantoira o balde zahar batian, besteik ez bazan, lore-sortari su eman ta ekaitzakin babestutzeko, defentsa bezela.
- Su emanda.
- Su emanda, bai. Kia daiola hantxe eoten zan, zimel-zimela baiño, hoixe.

9. Ekaitzetik babesteko lore-sortak erre egiten zituzten

- **Erref:** ZUM-006/013
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:19:45. **Bukatu:** 00:22:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Natura » Meteorologia

Laburpena:

Asentzioetatik San Juanak ingurura arte izaten ziren ekaitzik handienak lehen. Ekaitz gogorak izaten ziren. Euri asko egiten zuenean uholdeak izaten ziren Oikian, itsasoa igotzen zenean. San Juanetan bedeinkatutako lore-sorta ekaitzetatik babesteko erretzen zen. Urtero lore-sorta berria egiten zen. Lore-sorta zutik jartzeko ("hankak" egiteko) ezpata-lorea erabiltzen zen. Nolakoa den ezpata-lorea.

Transkripzioa

- Harriya ta zetorrenian, ez?
- Bai, harriya ta... Baiña ba al dakizu? Oaiñ ere ekartzen dittu, noixonoi.
- Baiño orduan ere ekaitzak etortzen zian, e! Ta gaiñea gehienbat izaten zan oaiñ, Asentziyoko gorputz buelta hau, gorputz hau, San Pedro, San Juanak bitartian izaten zian ekaitzik haundiyenak, e!
- Gaiñea gariya orduan...
- Bai. Gariya ebaki ta metak in. Ta bezebillen ekaitza jata botatzen. Ta geo Oikiyan itten zian ujalak. Itsasua haundiya baldin bazeon, maria iyotzen du Oikira.
- Bai, e?
- Bai, bai, bai, bai.
- Bertaiño, e?
- Bai, bai, bai. Berta ta [...] pasa, gaiñea. Lehenon presa zan estaziyuen parian, ur-presa. Eta harañoxe iyotzen zun lehenon. Baiño hua bota zuenetikan, oain goruo´re bai. Eta behetikan itsasua baldin bazan ta goiko ur kargakin, ujalak ertetzen zittun. Ta baita gari-metak bota´re, e! Urak. Oain kanpu hoitan izan diela? Bai, bertakuak ere ikusitakuak bagea. Esan nahi nuke, gari metak bota itten zittun. Baiño ekaitz haundiya izaten zian lehenon´re, e!
- Eta ordun, San Juanetako lore-sorta horrekin...
- San Juanetako lore-sorta horrekiñ, ba, ekaitzan defentsako bezela, o laguntza eskatzen zan, o zeatuta, bai.
- Eta urtero, ordun, lore-sorta berriya [...] eta...
- Bai, bai, bai. Urtero sorta. Eta da...
- Eta, zaharrakin ze iten zan?
- E? Haiek, emandako haiek, itxian banatu o zeatu. Esan nahi det, bai... Ta [...] apaingarri o zean ematen zian. Larrosa kapullo batzuk, o beste zintal hori [izaten] giñun, eta... bai! Baserri ingurun beti da loria, gutxi-asko, osatzen gendun sorta. Baiño lau hanka hoiek, ezpata-lore hoiek. Hori da martxuan hola loratzen dan zea bat da, baiño du oiñarriya zapata du lore horrek, ezpata-loria.
- Lore zurixka hori, hori-zuri bezalako bat?
- Batzuk zuriya badue ta beste batzuk horiya´re bai. Ta beste batzuk moria dia, e!
- Bai.
- Liriyuak bezela.
- Bai, horrelako batzuk, ezta?
- Bai. Udaberriyan hola jazintuak eta zeatzen dia tankera horretakuak. Baiño oiña du. Loriak beak du zapata. Kutxilluakin berdin-berdin iñ ta lauekin lotzen zan lore-sorta. Tak! Bai. Zea, kalartxo txuriyekin, zinta zuriya o lotu, zeñek baiño zeñek sorta earraua!
- Korapillua in... Hau korapillo hau nola esaten dezue zuek?
- Korapillua. Ez, ez, ez, ez! Korapillua zan. Ta geo, korapilluakin ta, baiña geo laxo txiki batekiñ lotzen zan txuriya. Baiño besuan sorta haundiya eramaten zan, e! Bai! Hantxen eukitzen zan, bakoitzak bere zean, eleizako zean, hantxen.

- Eta hori etxia ta zaitzeko zan, ez?
- E? Etxiak zaitzeko, bai. Ekaitza zaitzeko. Ekaitzan, itxian defentsa bezela zeatzeko.

10. Soroak zaintzeko bedeinkazioak

- **Erref:** ZUM-006/014
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:22:25. **Bukatu:** 00:24:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

Erramu egunean erramu adarra bedeinkatzen zen eta gero harekin gurutzea egiten zen. Gurutze hura soroan sartzen zen gaixotasunetatik babesteko. Santa Kurutz hurrengo astelehenean Ibinarrietara joaten ziren gorniaren kontrako mezara. Handik apaizarekin eta akolitoarekin etxez etxe etortzen ziren soroak bedeinkatzen. Haren ordainetan oilaskoa edo beste zerbait ematen zitzaion apaizari. Ibinarrieta berez Zestoa izan arren, Oikiako apaizak ematen zuen bertan meza eta gero Azkarate baserritik hasita etxez etxe soroak bedeinkatzen joaten zen.

Transkripzioa

- Eta bestela, soruak eta [...] zaitzeko...
- Bedeinkaziyua?
- Bedeinkaziyua ta... kurutze batzuk eta ez zian sartzen? Nola izaten zan hori?
- Ez. Hori... kurutziak... erramua... Erramu-egunian bedeinkatzen zan erramua, ear haundiya. Eta geo hari sartzen zitzaion bere txotxakin kurutzia iten zitzaion. Ta bedeinkautako erramu hua geo baatzan o souan sartzen zan, gaixotasunak o zeatzeko. Ta geo beste bat zan Santa Krutzetako, hurrungo astelehenian, oikiyatikan juten giñan Ibiñarrieta.
- Maiatzian.
- Maiatzian. Meza izaten zan, Santa Krutzetatik, jenealian, lehenengo astelehena izaten zan. Gorniyen kontrako meza izaten zan. Eta etxe danetatikan, bakoitzetik lagun bana, errez juten zan Ibiñarrieta. Ta geo han izaten zan meza hori. Ta mezan ondoren, baserri baserriz etortzen zan apaiza akolituakin bedeinkatzen, basarriyako souak. Gariyai ta gorniya ez izateko, ta igualtsu etortzen zan, baiño. Ta geo haren aldeako, oillaskua o ollua ematen zitzaion apaiz-itxea. Pentsau zenbat gauza ezautu dittugun! Haiek danak ahittu zian!
- Eta funtzionatzen zun?
- Funtzionatu ez dakit, baiña bedeinkatzen zala, ta bedeinkaziyua eman ezkeo, hobia izango zala, ta! Oain ikusten dittugu parezidos o antzekos esaten da gaur dan egunian, ba. Baiño fedia bazan, fedia bazan. Lelen mezeta jun etxe bakoitzetikan bana, eta geo handikan bueltan, ba...
- Baiña Zestua da hori, ez?
- Zestuana da, baiño Oikiyatikan meza hara eskeintzen zan, mezaikin juten giñan...
- Inguruko, hango, hango apaiza juten zan?
- Oikiyakua juten zan. Eta geo handikan dao Zumaian eo da, Azkarate basarriya. Ibiñarrietatik seittun dao, bestia Miravalles esaten zaiona, haiek dia Zumaienak, ta Oikiyako elizanak. Baiña Zumaia nola dan, Oikiya... Ta

geo handikan hasten zan bedeinkatzen, goittik behera, goittik behera. Ta gaur goizin batzuk ingo zittun ta hurrungun beste aldekoa, ta...

- Makiñatxo bat izango zian, ez?
- Oillasko earrakin juten zian, bai, apaiz-itxea. Dirua, dirua.

11. San Juanetako ohiturak: sua eta ate gainetako lizar-hostoak

- **Erref:** ZUM-006/015
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:24:40. **Bukatu:** 00:26:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Aisia » Jai-giroa » San Juan

Laburpena:

San Juan bezperako sua San Juan egunean egiten zuten beti. Etxeko traste zaharrak atera, plazara eraman eta erre egiten zituzten. San Juan eguna jai izaten zen eta jai-giroa izaten zuten. San Juan egunean lizar-ostroak jartzen ziren gurutzeak eginda ate gainetan.

Transkripzioa

- Eta beste... holan... ohiturarik eta bazan? Ba, ez dakit... San Juanetan, edo? Beste holako siniskerarik eta?

- Ez. Arbola jarriko zan, baiña ez zan urtero itten. Eta San Juan bezperako sua're, han beti San Juan egunian itten zan, gure gazte-denpoan. Zianak eta ez zian traste zahar danak inguratzen giñun. San Juan eguna jai itten gendun, jai, eleizak jai itten zuan ta! Ta guk ere jai. Ta bazkalondotik hasten giñan, ta aurreko egunetatik inguratzen traste zaharrak. Ta dana plaza eaman ta geo han sua in, ta bueno, pesta hori itten gendun ta...

- Herri guztiya bertan elkartuta?

- Bai. Gazte-jendia, pesta usaia, bai. Hala izaten zan. Baiña bestela ez, San Juanak ez du holako zeaikan.

- Eta entzun degu beste herri batzuetan behintzat, San Juan goizian, lelengo...

- Lizarra. Lizar-ostuak jartzen zin ate-gaiñetan, kurutzia jarrita, bi ixkiñetan. Gizonak'e harrek bazekiyan jarri! Ni ezaututa nao beau're jartzen hemen bertan ere.

- Eta hori San Juan egunian izaten zan?

- San Juan eguna, lizarraikin. Badakiye automobillak ere ibiltzen, e, lizar-ostro hoiek, e? Badakiye. Ta geo lehen esan dizuten erramua, lore-sorta hori, ta geo San Juan eguneko lizar hori ez zan elizan ta hola zeatzen. Baiño bestela, itxietan jendiak jarri bai, bere gurutziakin ta, bazekiyan. Hoiek ezautu giñuzen danak.

12. San Markos eguneko errogatibak

- **Erref:** ZUM-006/016
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:26:00. **Bukatu:** 00:27:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

San Markos egunean, apirilaren 25ean, errogatibak egiten ziren. Plazara irteten ziren errogatibetako letaniak kantatuz. Urte askoan eutsi zitzaion ohitura horri.

13. Pazkoetan ur-bedeinkatua eta su-berria

- **Erref:** ZUM-006/017
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:27:30. **Bukatu:** 00:30:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

Pazkoetan ura bedeinkatzen zen eta su-berria ere egiten zen. Aita sakristaua zen eta "zimitayoa" (elizpean) su-berria pizten zuten ahal zen bezala (orduko harridun txiskeroekin). Hurrengo egunean akolitoak etxez etxe su-berria banatzen ibiltzen ziren "ieskarekin" (zuhaitz ipurdietan egoten den perretxiko zabala). Su-berri hori beheko sutara edo ekonomikara botatzen zen etxean.

14. "Serore-artua" eta "serore-garia" serora lanak kobratzeko

- **Erref:** ZUM-006/018
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:30:15. **Bukatu:** 00:32:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Ama serora izan arren, ez zuen soldatarik izaten eta etxerik etxe ibiltzen ziren "serore-artua" eta "serore-garia" jasotzen. Abenduan egiten zen "serore-artua jasotzea"; urrutienekoek beraiek ekartzen zuten " urteko pagamentua" etxera eta hurbilenekoetara eskean joaten ziren beraiek. Garia ere jasotzen zuten abuztuan. Seroraren jorjala ordaintzeko egiten zen eskea. Aitari sakristau lanak egitearren terreno pusketa bat ematen zioten lantzeko.</p>

Transkripzioa

- Ta geo guk jorjala, gure ama zanak ez zekan hillian azkenian jorjalik, eta serore-tratuik eta, ez zuan izaten. Eta basarriyan ibiltzen giñan serore-gariya ta serore-artua izaten giñun. Orduan, artua jasotako... Gabon-aurreko bueltan iten giñun abenduan, serore-artua jasotzia. Itxez itxe, e! Urrutiyenekuak taka!, ekarriko zizuen itxea, zuzen, e!, paamentuak urteko zean. Eta inguruan zeudenak, ba, serore-eskian, esaten giñun, serore-jorjala. Eta lakaia. Badakizu, kuadratu, nola... ez dakit ezautzen dezun, kuadrak. Hua artua, alia, aletutako... ra!, berdintzen zuen, ta zakura. Zenbat, ba? Hamar, dozena bat kilo itten giñunian, itxea jun ta hurrunguan beste [...] ta hurrunguan beste bat. Ta gariya jasotzen zanian ere, abuztuan izaten giñan, abuztuan aurrenien o hola, gariya're jasotzen

gendun han. Serore-artua ta serore-gariya, jornalak. Eta gariyak eta ahittu zianian, kitto! Kitto! Ta geroa, oaiñ azkenengo urtetan zeoze euki behar zun, serore-jornala o. Beste iñundikan nola ez zakan elizan arduradun o zeatzeatikan, baiño, ez deu besteikan. Guk ez gendun diruikan ezautu gure amakin eleiza aldetik. Ta aittak, berriz, terreno pusketa bat eleizana ematen ziyen, baatza o artua o zeoze nahi baldin bazun, sankristau-soua o esaten ziyena, baiña ez zuan, ez zuan bestelako holako aparteko gauzikan ez gendun izaten.

- Eta orduan hori zan, serore lanaren jornala hori izaten zan?

- Bai. Ta aste erdiyan o zean bat baldin bazuen, bataion bat igual aste bukaeran o serore-sankristauak eta batzuk gonbiratu're bai, ta beste batzuk, ba, gonbiratuen partez, patrikako're ematen ziyen zeoze, ta bueno. Baiño, dana utzita, beayek zeatzea.

15. Tabakoa ereiten zuten; prozesua urratsez urrats

- **Erref:** ZUM-006/020
- **Iraupena:** 0:04:30. **Hasi:** 00:33:10. **Bukatu:** 00:37:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

<p>Konde baserrikoek landare ugari ereiten zituzten. Beraiei tabako-hazia ematen zieten eta erein egiten zuten. Lau-bost hosto zituenean aldatu eta abuztu amaieran jasotzen zuten. Kerten gogorra izaten du tabakoak eta aizkorarekin edo igitaiarekin ebakitzen zuten. Nola lehortzen zuten. Lehortutakoan hostoak sustraitik banatu eta sortak egiten zituzten. Zumaiara eramane eta handik Iruñe bidaltzen ziren trenez. Konde baserrikoak ziren prozesuaren arduradunak, tabakoa beste baserrietan ere erein arren. Baserrian negu partean ez zen irabazpiderik izaten eta tabakoaren dirua ondo etortzen zitzaien. Otsail inguruan kobratzen zuten.</p>

Transkripzioa

- Konde basarriya, ta harrek itten zun landare asko. Hua zan herriko danen buru, o... Hark zeatzen zuan. Baiño, gure denpoan itxia... haziya ematen zigun guri!

- Tabako haziya.

- Tabako haziya itxian zeatu, ta geo ernetzen hasten zanian, [...]. Hazi-toki zea batian jun ta, ta!, bihatzakin dana txut. Lau ostro o sei ostro zanian aldatzen gendun. Abuztuan azkena, iraillian aurrenien jasotzen gendun.

- Gariya...

- Bai, gariya kendu ta ipintzen gendun, bai. Eta geo, lehortzea, ba, hiru hillabete o izaten zan. Ta itten gendun aixkoakin o itaiakin ebakitzen gendun, tentian.

- Aixkoakin?

- Bai, bai, bai. Kerten gogorra du. Horrela kertena, eta trak! ebakitzen zan, punta zorrotzakiñ. Eta geo, bestela itten gendun, zea, iltzia. Bakoitzai zea sartu, alanbria ganbaran dana, alanbria in, ta alanbrien taka-taka-taka-taka, dana exekitzen gendun. Eta lehortutzen zanian, mendebala behar zun izan ostrua ez puskatzeko. Orduan lika-liko-liko-liko [...] danak, [...], e!, peatzen zan dana, e!. Eta... lika-liko. Ta ordun taka-taka, sustraittikan dana kendu ostrua eta geo dozena bat o eskuan bittu txuzen ta beste batekin buruba itten giñun, sorta, sorta. Ipurdihak eta muturrak alde batea,

kertenetik. On-ona erdikua-ta beste aldea. Hua ya doblia pagatzen zeen. Erdikua puroako, puruantzako, bai.

- Ona puruantzako eta...

- Bai. Beaiiek klasifikatzen zeen. Guk muturrak ta ipurdiyak garbi-garbiya, orri haundiya ona zeona, aparte juten zan beti. Ta muturrekuak eta ipurdikuak xixtriñauak o erdi-zeatu, zulatuta igual, hua beste aldián, farduak. Kaja haundi bat, zakuakiñ zeatu, lotu, josi...

- Ta Panplona.

- Bai, bai, bai. Egunak izaten zian, eamaten zian egunak. Ya merkantzia o, Zumaira ekartzen zian...

- Ta trenian edo?

- Trenian o... nik ez dakit nola juten zian! Nola zeatzen zian behiñik behin, horrenbeste kilo...

- Baiña zuek ez ziñaten juten...

- Ez, ez, ez, ez! Konde o dalako horko... Oaintxen dala urtebete o hola hil zan gizon hori, zaharra. Eta ya haiek arduratzen zian. Gero hasi zian kamioi...

- Zuek hasi baiña...

- Guk pixatu ta guk jartzen gendun eta harei zean, horrenbeste kilo horrenbeste zeakiñ etortzen zan. Nota hartzen zizuen, geo´re hari buruz etortzen zan. Hango klasifikaziyeen buruz etortzen zan, bai. Ta hortxen, Kandelaiotako buelta horretan etorriko zan pixua ta diruen fakturaziyo, esan nahi nuke, bere zea ta... Otsailen azkeneako kobranta.

- Eta...

- Bai, bai. Ordurako diru ederra zan, e! Iñ in behar, lan asko in behar, baiña dirua zan. Ta garai hartan, ba, in zazu kontu. Gabonetatik udaberrira arte, baserriyan ez dao ganauakin ta zean. Lehengo patata o... Ez da, ez da. Oain bezela ez zan, ta!

- Gero bai, ez? Ya martxutik aurrera...

- Bai, martxutik aurrea udaberriko gauza hasten zan.

- Bai.

- Landaria ta...

- Baatza ta.

- Bai, baatza ta dana. Handikan santu guztiyen aldea arte, ba, segi-segi-segi-segi danakin. Berdura, illarrak, baina, porrua, udarako berdura, Zarautza o Donostira.

- Ta orduan, neguko diru hori ondo etortzen zan, ezta?

- Hoixen etortzen zala!

- Tabakuan diru hori...

- Bai, bai, bai.

- Eta, e...

- Askotitten zan Oikiyan! Iya baserri danetan, e!

- Bai, e?

- Bai, bai, bai, bai. Libre izango zan! Itten gendun behiñik behin, ta!

- Ta zuen aurretik´e bai? Gurasuak eta... gogoratzen dezu? O, aittittak eta amamak eta?

- Ez, ez, ez, ez, ez. Aittak eta amak denpoan hasitakuak. Gu txikiyak giñan denpoan hasiko zian beharbada. Bai.

- Eta geo´re, jarraitutakuak?

- Jarraitu zuan gero arte, baiño ez dakitt, uain dala berrogei bat urte lagako zuen, e! Lehen esan dixutena, gaixotasuna o lizundu itten zan. Ezin zan. Lurra gaixotu o izaten da, ba? Ezin zan tabakoik iñ, atmosferagatikan o... ez zan, ezin zan iñ. Souan bertan hasten zitzaion lizuna. Ta orduan ez du bate baliyo. Galdu itten du ta! Bai. Ta geo, bertan behera galdu zan hori

dana. Oain irauten duan Panplonako fabrika harek, ez dakitt hortikan aurea ezer´e.

16. Tabako-orriak angulak akabatzeke

- **Erref:** ZUM-006/021
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:37:40. **Bukatu:** 00:38:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Beste batzuk

Laburpena:

Tabakoa angulak akabatzeke erabiltzen zen. Angula garbitutakoan pare bat tabako-ostro bota eta berehala hiltzen zen angula. Azkenengo tabako-orriak San Migelgo Artia baserrian ikusi omen ditu. Baserri hortakoek ere anguletarako ereiten zuten tabakoa. Lehen angula asko hartzen zen Oikian.

17. Anguletarako baserri bakoitzak bere txanala

- **Erref:** ZUM-006/022
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:38:55. **Bukatu:** 00:41:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Beste batzuk
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Angulak

Laburpena:

<p>Marea estazio pareraino igotzen ze lehenago. Han inguruetako baserri guztietatik angulatara joaten ziren. Bakoitzak bere txanala izaten zuen arrantzarako. Itsasoko hondarra ere txanaletan eramaten zen Zumaiatik Oikiara soroetan botatzeko. Azarotik San Joseak arte harrapatzen ziren angulak. Angula asko harrapatzen zen orduan eta kanpoko tabernetara saltzen ziren (Donostia, Getaria, Eibar...). Etxean ere jaten zen angula, okasio berezietan.</p>

18. Bahearekin angulatan

- **Erref:** ZUM-006/024
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:42:40. **Bukatu:** 00:43:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Beste batzuk

Laburpena:

Lehen bahearekin (sare zabalarekin) egiten zuten angulatan. Bahia kertenetik hartu eta txanaletik egiten zuten angulatan. Gaur egun ere ikusten dira baheak, baina kerten motzagoarekin.

19. Ibai garbira lasunetara, bainatzera edo arropak garbitzera

- **Erref:** ZUM-006/025
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:43:15. **Bukatu:** 00:45:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Beste batzuk

Laburpena:

Lasun asko egoten zen ibaian eta ura garbia egoten zenez, lasunak ere jaten zituzten. Kanpotarrak, turistak, ere etortzen ziren arrantzara ibaira, erraza izaten zen lasunak harrapatzea eta. Balduino erregea ere bertan ibiltzen zen arrantzan. Ura oso garbia egoten zen eta bainua hartzera ere sarritan joaten ziren ibaira. Dutxarik ez zegoen eta lanean aritu ostean ibaian bainatzen ziren. Etxeetara ez zen iristen urik askotan eta arropak garbitzera ere ibaira joaten ziren arropak astoan hartuta.

20. Gari-jotzea txanketean

- **Erref:** ZUM-006/027
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:46:15. **Bukatu:** 00:48:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:

Gari-jotzen ibilita hauts eta zikin ugari sortzen zen eta izarak erabiltzen zituzten aurpegia garbitzeko. Gari-jotzen motorrarekin hasi zirenean "matxaka" deitzen zioten, baina aurretik "txanketian" egiten zen gari-jotzea. Garia eguzkitan lehortzen jarri eta harri-losaren gainean "jaulki" egiten zen. Gari-jotze ostean garbitzeko aitak dutxa antzeko bat jarri zuen etxe ondoan. Ordurako aurrerapen handia zen.

21. Bainua hartzera ibaira

- **Erref:** ZUM-006/028
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:48:30. **Bukatu:** 00:49:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak

Laburpena:

Bainatzera ez ziren umeak bakarrik joaten; nagusiak ere arto artean aldatu eta freskatua hartzera joaten ziren. Erribera bakoitzak eskailera antzekoak izaten zituen ibaira jaisteko. Ur garbia zegoen ibaian orduan.

22. Arropak garbitzeko eta ganaduek ura edateko albergak

- **Erref:** ZUM-006/029
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:49:55. **Bukatu:** 00:51:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Arropak garbitzeko albergak izaten zituzten. Plazan bertan bazegoen alberga eta doenerdi bat baserritatik joaten ziren bertara. Baserri gehienek izaten zuten beren alberga, arropa garbitzeko harri-losarekin eta ganaduek ura edateko askarekin. Plaza inguruko baserrietako ganaduak plazako iturriak zituen asketara eramaten ziren ura edatera.

23. Lixiba nola egiten zen sutako hautsarekin

- **Erref:** ZUM-006/030
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:51:25. **Bukatu:** 00:54:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

<p>Lixiba nola egiten zen. Egurrarekin sutako hautsa egiten zen eta hauts ura jaso egiten zuten. Arropa (lihozkoa asko) zinka baten jartzen zen ur epeletan eta pasadera batekin sutako hautsa botatzen zitzaion gainera. Beratzen uzten zen eta sutako hautsak zikina ateratzen zien arropen. Gerora, xaboi-pastilak erabiltzen ziren. "Koltxillak" nola garbitzen zituzten. Zuritzeko arropak eguzkitan jartzen ziren.</p>

24. Lihozko izarak; artilea egiten zuen amamak

- **Erref:** ZUM-006/031
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:54:15. **Bukatu:** 00:56:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Natura » Meteorologia

Laburpena:

Izarak lihozkoak izaten ziren, batzuk finagoak eta besteak lodiak. Lihozko haririk ez du ezagutu, baina amamak galtzerdiak egiteko artilea egiten omen zuen. Artilea nola egiten zuen ardatzean bilduz. Amamaren baserrian Errezilen menda-erratzak bildu eta medikuari saltzen zizkieten. Diru harekin haria erosi eta beheko sutako argiarekin sobrekama zuriak egiten aritzen ziren. Menda-erratzak etxeak garbitzeko erabiltzen ziren.

25. Menda-erratza eta asun-erratza etxeak garbitzeko

- **Erref:** ZUM-006/032

- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:56:15. **Bukatu:** 00:57:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia

Laburpena:

<p>Menda klase asko daude; nolakoak diren. Asko saltzen zen orduan menda-erratzak, etxeak garbitzeko eta usaina emateko erabiltzen zen eta. Ohe azpiak garbitzeko erabiltzen zen batez ere. Asunarekin ere erratzak egiten zen hautsa biltzeko.</p>

Transkripzioa

- Bai.
- Eta zer dia, menda...?
- Beti... Menda, bai. Menda da hori... menda hainbeste klase dia!
Hierbabuena ta [zea ta`re] bai, baiño menda beltza eta beste menda...
terziozpelozko bezelakotxe ostro leun-leuna dun bat, lore more luze bat du
hark ere, baiña. Hemen San Miel bidian-ta`re asko dao horrelakua. Baiña
menda hori, bueno, ordun garai hartan pff! baita hamen Zumaiako plazan
´e ezaututa nao ni menda-erratzak saltzen, e! Bittu ta moztu`re... txukun-
txukun ekarri ta batek baiño gehiok gustora erosten zittuenak, e! Etxiei
hautsak garbitzeko ta.
- Ta usai ona emateko.
- Ta usai ona! Oain goizetik [...] batez, batez. Garbi usai earra hua
pasatakuan, e!
- Armairuak-eta garbitzeko ta...
- Armaiya baiño gehio izaten zan ohe azpiyak eta armaiyo atzetan-ta
itten zan hauts hori. Pipittan-ta kontrako`re ona zala esaten zuen ta. Bai.
Holaxen.
- Pixkat desinfekatzeko, ez?
- Bai, bai, hala zan ordun, hala zan. Asuna`re bai erratzan.
- A bai?
- Asunakin ere erratzak itten gendun. Itten gendun sorta. Ta hautsa biltzeko
ona da asuna`re, ganbarak-eta garbittu bihar zianian ta. Asuna`re ona da,
ba,i bai. Holaxen ba.

26. Josteko zaletasuna; Singer eskuko josteko makina

- **Erref:** ZUM-006/033
- **Iraupena:** 0:03:55. **Hasi:** 00:57:35. **Bukatu:** 01:01:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Betidanik gustatu izan zaio jostea, amona ikusita. Eskuko josteko makina zuen amonak, Singer markakoa. 19 urtera arte ez zuen ezagutu hankarekin eragindako josteko makinarik. Amonak eta ahizpak Zarautzen erosi zuten eskuko josteko makina, eta txandaka eskuan eraman omen zuten Errezileraino. Amonaren eskuko makina gordeta omen du oraindik. Beste bi makina ere badauzka Alfa markakoak. Hiru urtez ibili zen josten ikasten:

lehenbizi bordatzen, gero sastrearekin Zumaian, eta azkenik Donostian jantzigintzan. Gaur egun, oraindik berak egiten ditu bere arropa gehienak.

Ibarbia Ugarte, Brigida | ahotsak.eus Orr.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com